

Rosa Maria Martín Salvaris

EHUKO IKUS-ENTZUNEZKO IRAKASLEA

Surfistak eta buzoak

Bizitza uretan hasi omen zen duela 3.500 milioi urte, hor nonbait. Izaki kaskarin batek lehorrera egin zuen jauziak mugari nagusia ipini bazuen ere, ur-zorro batetik jaio gara gero ere azken 180 milioi urte hauetan. Gehienetan hondartzan itsasoari begira, ur-minak jota, geratzen garen arren, uretara itzuli beharra izaten dugu askotan.

Badut lagun bat surfista aparta dena. Gainazalean zirristatzen abilezia ikaragarria du. Ez da ia inoiz bustitzen, ez lanean, ez adiskidetasunean, ez auzoan, ez eta maitasunean ere. Eta ur-tanta gutxi batzuk bere urrezko larruazala eta adats distiratsuak ukitzen dituztenean, are ederrago agertzen da argazkietan, makinak klik egiten duenean bera baita ondoen paratzen dena.

Bitartean, itsas zabalean isilpeko mundura jaurtiki du bere burua urpekariak, hondartzako jendetzarengandik urrun. Jantzi astunak eta eskafandrak ez digu nor den ikusten uzten. Ur sakonetan murgiltzen da, lanean, adiskidetasunean, auzoan eta maitasunean. Eta han, hondo ilunetan gorpurik ustelduenak eta altxorrik miresgarrienak begizatzen ditu.

Surfistak ondo konbinatuta eramaten ditu taula eta bainujantzia, itsasertzean berari begira gelditu direnen begira-



INIGO AZKONA

daz gozatzen baitu. Zerrenda irakurtzen denean, eskua altxatu eta ihesean doa segituan, beste ikuskizun batetara. Asko mugitzen denez, gerriko giharreria indartu eta malgutasun handia garatu du. Ez zaio itsaso barea gustatzen. Olatuen beharra du, haien indarraz profitatzeko, eta abagunearen logikan maisua denez, onurarik handiena ateratzen dio aukera bakoitzari.

Aitzitik, hitzik egiten ez duelako, itsasorren murmurra entzuteko gai da buzoa. Eta hitzik egiten ez duelako, bizirik irauteko nahikoa oxigeno izango du, goian gelditu den beste munduarekiko zilbor-hesteari lotuta. Ur handitan ibiltzen ikasi du. Buru-belarri ekiten dio bizitzari eta danga-danga edaten ditu egunak, gauak. Baina itsas azalera itzultzen denean, inork baino hobeto erakusten dio esker ona haizeari, eguzkiari.

Milioi bat urte igaroko da berriro eta denboraren tsunamiak lehorrera botako ditu surfista eta itsaspekaria. Lehenak kiskalita eta zimurrez beteta izango du begitarrea, uhinen indarrak gabe, ibilge eta elbarri geratuko da, edozein erreparoren beharretan. Buzoa ere zimelduko da, baina oxigenobotila bati esker aspaldi ikasi zuen minutu bakar baten balioa, eta irribarretsu begiratuko dio bidearen amaierari. ■

Badut lagun bat surfista aparta dena. Gainazalean zirristatzen abilezia ikaragarria du. Ez da ia inoiz bustitzen, ez lanean, ez adiskidetasunean, ez auzoan, ez eta maitasunean ere

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Guztietatik proposatzen zaizkigu kurtoak. Joan den astean lau lekutik izan dut holakoetara joateko deia. Eta lautik hirutan, lidergoa da izarra, lan prozesuak zuzentzeko teknikak irakastea dute xede. Aholkularitza. Harrituta nauka asuntoak. Nortzuk diren proposamen horiek egiten dituztenak ikusita, aragotzen zait harridura. Hirutik bi, aspaldiko puntako futbol eta saskibalo jokalariek, prestatzaile diplomatuek muntatutako bulegoak dira antolatzaileak. Beren kirol jarduna curriculum, kirol taldeen barne bizia ezartzen dute eredu, bestelako lan talde eta entrepresentzat baliagarri izan litekeelakoan. Garaipena xede, indar guztiak

Alde

horretara teknikoki nola antolatu eta zuzendu da iragartzen den irakaspena. Eta badirudi arrakasta handia biltzen ari direla entpresari zenbaiten aldetik, langileen motibazioa teknika eraginkor batzuen kontu soila bailitzan. Ez dute berdintasuna aipatzen, ez dute proiektuak erabakitzean parte-hartzea ezinbestekoa denik esaten. Hortaz, ezer gutxi jakin dezakete, beren eskarmentuaren oinarrian ni eta ni bakarrik baitago. Kluben zuzendaritzek erabakitzen dute nork kudeatu behar duen jokalaritza. Zuzendaritzak ezarri kudeatzaileak egiten du prestatze plangintza. Jokalariek onartu besterik ez dute, eta konfliktua sortzean, men egin. Nekez erakutsi diezagukete fundamentuzko ezer. ■